

Herririk Herri | 4 |

Lapurreten aurrean neurriak hartzeko eskatu diote Elorrioko Udalarari

Kirola | 16 |

Durangaldeko I. Surf Jaialdia ospatuko du Zutunduk bihar Plateruenean



Kultura | 13 |

Taldekiedeen artean berriztar bi dituen Xarma taldea irabazle Danbakan

Datorren urteko lehen seihilekoan trenak lurpetik zirkulatuko du

- > Iñaki Arriola garraio sailburuak hala jakinarazi du asteon obretara egin duen bisitan
- > Lebarioko azpiegiturak 2012ko bigarren erdian erabiltzeko prest egongo direla azaldu du Arriolak

3

Iurretakok eta Zalduak onenen arteko derbia jokatu dute bihar

KIROLA • Lehenengo erregionaleko igoera postuetan daude bihar Arri-pausuetan neurtuko diren Iurretako eta Zaldua. Iurretarek oraindik ez dute partidurik galdu, eta azken laubost urteetan gertu izan duten igoera lortzeko bidean sendo dihardute. Zaldibarko taldea, aurreikuspenak apurtuz, liga azpimarragarria burutzen ari da eta sailkapeneko bigarren postuari eutsi gura dio. **15**

"Errealitatea den moduan margozte da nire erronka"

KULTURA • Durangoko Ezkurdiko erakusketa aretoan ditugu ikusgai, domeka honetara arte, Xabier Gaztelumendi gaztearen margolanak. Ondare Kulturalaren Zaharberritzea ikasi du Gaztelumendik Madrilen. Bere koadroetan, "inguruko errealtatea ahalik eta modurik fideleanean, artifiziorik barik, islatzen saiatzen" dela diosku. **11**



Kepa Aginako

Durangaldeko elkarrizketa politikoak, Garaiko alkateagaz hasita

Garai • Hauteskundeak bitartean eskualdeko politikarien iritziak ezagutzeko tartea zabalduko dugu astero Anboton. Biztanle gutxien dituzten herrietako alkateekin hasita eta alkatetzarik ez duten alderdiak tartekatuz, Durangaldeko aktualitate politikoa- ren berri emango dugu asterik aste. Gontzal Sarrigoitia Garaiko alkateagaz hasi gara. **8**

• Durangaldea

Durangaldeko Ezker Abertzalea grebagaz bat dator **2**

• Durango

Urte bateko kartzela zigorra AHTaren kontra egiteagatik **6**

• Otxandio

Saharaiuen errealtatearen berri eman dute Gaztetxean **7**

• Mañaria

Prezio tasatuko 24 etxebizitza eraiki gura ditu Udalak **4**

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

902 110 436
www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ORDIZIA OTSAILAK 3 osteguna, 17:30

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA OTSAILAK 3 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

DONOSTIA URTARRILAK 29 larunbata, 10:30

Miramongo Parke Teknologikoko eraikin nagusia

ARETO NAGUSIAN
Etorri aurretik izena eman!



HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Dagoeneko enpresa eta arlo publikoko 60 atxikimendu jaso ditu greba deialdiak

Greba egunean manifestazioak izango dira Durangon, Zornotzan eta Elorrion



Joan zen barikuan Durangoko kaleetan egin zuten manifestazioa, gehiengo sindikalak deituta.

Urtarrilaren 27rako greba deialdiak eskualdeko enpresa pribatuko eta alor publikoko 60 atxikimendu jaso ditu orain arte. Dena dela, datozen egunetan hainbat eragile sozialekin batzartuko direla adierazi dute greba deitu duten sindikatuek (ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU) ahalik eta atxikimendu gehien lortu guran.

Lortu dituzten atxikimendurik gehienak enpresa pribatuen alorrean lortu dituzte, bereziki

metalaren arloan. Tartean daude, besteak beste, Fuchosa S.L., Laminacion y Derivados S.A., Inyemetal S.A., Estampaciones Metálicas de Bizkaia eta Bruss Juntas Tecnicas. Horiez gainera, zerbitzuen alorrean Sabeco Banaketa S.A.-k eta paperaren alorrean Smurfit Kappa Nervion-ek egin dute bat deialdiagaz. Kurutzia Ikastolak ere bat egin du grebagaz.

Alor publikoari dagokionez, Amorebieta-Etxanoko udaletxe-

ko eta Durangoko udaletxeke funtzionarioek bat egin dute.

Hiru manifestazio

Datorren eguneko greba orokorrean manifestazio bana egingo dute Durango, Elorrio eta Zornotzan; hirurak arratsaldeko 17:30ean hasiko dira. Durangon Santa Ana-tik abiatuko dute protesta ekitaldia; Elorrion Herriko Plazatik irten-go dute eta Zornotzan Zelaieta parketik. ■ J.D.

Bat egin du Durangaldeko Ezker Abertzaleak grebagaz

"Milaka lagun pentsio eskubiderik barik geratzea onartezina" dela adierazi dute prentsaurrekoan



PSOEn Durangoko egoitzaren aurrean egin zuten prentsaurrekoa.

Durangaldeko Ezker Abertzaleak bat egin du urtarrilaren 27ko greba deialdiagaz. Pentsio erreformaren kontrako greba ez dela "kasketaldi" bat adierazi zuten: "Benetako aldaketaren alde borrokan jarraitzeko bidea da". Ezker Abertzalearen iritziz, "zerbitzu publikoen murrizketagaz urrats berri bat eman gura dute pentsioen erreforma pribatizatuz".

"Milaka lagun pentsio eskubiderik barik gelditzea onartezina" dela esanda, beharrezkoak diren aldaketak zerrendatu zituzten. Alde batetik, euskal pentsio sistema "berton erabakitzeko" beharra aldarrikatu zuten, "berton kotizatzen dugulako". Fiskalitate justu eta progresiboa eskatu zuten, eta gazteak eta emakumeak lan merkatuan sartzeko beharra ere bai, "baina baldintza eta aukera berdinekin". Azkenik, kalitatezko enpleguaren beharra azpimarratu zuten, "zenbat eta soldata handiagoa izan, orduan eta gehiago kotizatuko delako". ■ J.D.



ISAAC ANTWIGHANATARRA, DURANGON BIZI DA. LANGABETUA.

Isaac Antwighanatarra da eta Durangon bizi da. Gaur egun langabezian dago eta subsidioa kobratzen du. Ghanako Lagunen Elkarteko Presidentea da Euskal Herrian.

"Nikorain arte 8 urte kotizatu ditut eta langabezian nago. Erreforma honekin gaitzago

edukiko dut pentsio publiko bat edukitzea. Niri eta nire moduko beste askori gogor eragingo digu erreformak. Horregatik, greba egitea ondo ikusten dut; jendeak eta gure kolektiboak erreformaren informazio gehiago edukitzeko eta kontzienteago izateko balio digu".

Jantokietan zerbitzua ematen duen Auzolagun enpresan egiten du lan Lourdes Irustak. Gehienak emakumeak dira sektore horretan. Jantokietako lanaldiak bi ordu eta erdi-koak dira, eta kotizazioak oso txikiak.

"Ez dut erreformak zelan eragingo didan pentsatu ere

egin gura. Lotsagarria da: Pentsioen % 100 kobratzea niretzako eta nire lankidetzako ezinezkoa izango da. Pentsioa jasotzeko eskubidea kenduko digute lanaldi partzialeko kontratadun guztioi. Urtarrilaren 27an greba egin ez ezik, kalera irten behar dugu".



LOURDES IRUSTA > ZORNOTZARRA. ESKOLA JANTOKIKO LANGILEA



EDORTA BIRITXINAGA > 25 URTEKO IURRETARRA. LANGABETUA.

Gazte asko legez, Edorta Biritxinaga langabezian dago. Hainbat enpresatan lan egin du, baina ez du ezer iraunkorrik aurkitzen. Egiten dabilzan erreforma guztiekin oso ardurata dago.

"Erreforma eraso bat gehiago da. Pentsio osoa jasotzeko 40 urte kotizatu

beharko direla diote. 67 urtera arte ez, gure belaunaldiak 70 arte egin beharko du lan, edo gehiago. Gure gurasoek lortutako eskubide guztiak kendu gura dizkigute. Greba egitea guztion betebeharra da. Guk ez baditugu gure eskubideak defendatzen, ez du inork ere egingo".

Urte honetarako ekintzak zehaztu ditu CCOOk



Asanbladaren ondoren kontzentrazioa egin zuten delegatuek.

Durangaldeko 100 ordezkari inguru asanbladan bildu zituen eguztenez CCOO sindikatuek, Iurretako Ibarretxe kultur etxean, "urte honetarako ekintzak zehazteko" asmoz. Gero, Durangoko Madalenako Gizarte Segurantzaren egoitzara joanda mobilizatu ziren. Roberto Martin eskualdeko ardu-

radunak adierazi zuenez, "erreformen aurrean negoziazio aukerak agortzeko apustua" egin dute, "baina mobilizazioak, greba orokorra barne, alboratu barik". 67 urterekin jubilatzeke neurria ez dutela "onartuko" esan eta pentsio minimoak oinarritzko errentagaz parekatzea eskatu zuten. ■ M.O.



Ikastaroetan parte hartu dutenen %83k erretzeari utzi dio

Oraintsu amaitutako ikastaroen arrakasta ikusita, Amankomunazgoak berriro hasiko ditu otsailean

Durungaldeko Amankomunazgoak oraintsu amaitu ditu erretzeari uzteko ikastaro bi. Modu jarraituan 22 lagun ibili dira, eta horietatik 19klortu dute erretzeari utzea (%83k). Horregatik eta oraintsu indarrean sartu den legeak eskaria handitu duelako, apirilean hasi beharreko hurrengo ikastaroak otsaileraren 7ra aurreratu dituzte. Zortzi asteko ikastaroak dira, astean

behin batzen direlarik. Tokia izena ematen dutenen bizitokiaren arabera erabakiko dute.

Ikastaroetan erretzeari apurka uzten diote, astetik atera zigarrak kopurua gutxituz. Hiru oinarriko metodologia darabilte: taldekako terapia, laguntza psikologikoa eta farmatologikoa. Honako helbidean apuntatu daiteke: sasoia@terra.es. ■ J.D.



Tailerrek 15 tren unitate jasotzeko ahalmena izango dutela adierazi dute.

Trena lur azpiko trazatutik joango da 2012ko lehenengo seihilekoan

Iñaki Arriola garraio sailburuak hala iragarri zuen obretara bisitan etorrira

Iñaki Arriola garraio sailburuak azpiegitura berriak eraikitzeko lanak bertatik bertara ikusteko eskualdera egindako bisitan azalduenez, "Euskotreneko tailerrak eta kotxetegiak behin betiko eroateko prozesua 2012ko bigarren seihilekoan burutuko da, eta ordu-rako trenak lur azpian egongo den trazatu berritik zirkulatuko du 2012ko lehen erditik". Instalazio, tresneria eta makinaria guztiak

Lebariora eroan ondoren, gutxienez beste hamabi hilabete beharoko dituzte une honetan Euskotreneko kotxetegiak jasotzen dituzten eraikinak eraisteko eta libre geratuko diren 60.000 metro koadroko lurak egokitzeko.

Lebarioko ekipamenduak
Lebarioko instalazioko ekipamendua kotxetegiak eta prebentzio eta konponketa mantentze lane-

tarako tailerrak, tren unitateak garbitzeko gunea, laborategia eta berrikuspen lanetarako fosoak izango ditu, besteak beste. Lanen nondik norakoaz azaldu zuenez, "une honetan amaituta dago tailerren eta kotxetegiaren egituraren %80 eta administrazio eraikinaren %100". 2011 urtean amaituko dituzte bai gune bietako egitura eta itxidurak bai kontratatutako instalazioen eta trenbideen %90 ere. ■ J.D.



Dagoeneko 15 lagunek izena eman dutela adierazi dute..

Ordainlekuen inguruko araudi berria "iraingarria" da Aralarren ustez

"Beherapen moduan saldu arren benetan igoerak dira", salatu du Dani Maeztu legebiltzarkideak

Autopistaren ordainsari berriak arautzen dituen Aldundiaren dekretua "diskriminatzailea" da, Aralarren ustez, "Durungaldeko biztanleek bakarrik ordaindutako bidesariagaz" Bizkaia mailako azpiegiturak finantzatzeko dituztelako, eta "iraingarria" da, "ez delako beherapena, igoera baino".

Prezioei dagokienez, lehen Basauritik Iurretarako 22 kilometroek 2,09 balio zuten; orain Usan-

solotik Iurretarako tartea 1,96 balio du: "Beraz, lehen kilometro bakoitzeko 0,092 ordaintzen genuen eta orain 0,108 ordaintzen dugu; %17 gehiago". Bestetik, orain ez da Basauriraino ordaintzen, baina "Erletxeetatik Usan-solorako kilometro biak ordaintzen jarraitzen dugu". ■ J.D.

> Bideoa: www.anboto.org

■ IURRETA

462 pakete batu dituzte Sahararako

Aurten ere, iurretarek, Durungaldeko beste herri batzuekin batera, Sahararako Elkartasun Karabanen parte hartu dute Herria auzo elkarteagaz. Elikagai eta konpresen bilketan 462 pakete eta lata bildu dituzte.

Ikastetxeetan, kultur etxean, udal bulegoetan, jubilatuen etxean eta hainbat dendatan jardun dute bilketan. Herrian egindako kanpainaz gainera, udalak Herria elkarteari 900 euroko dirulaguntza eman dio saharaiuen errefuxiatuen kanpamendura elikagaiak bidaltzeko. ■ A.U.

Parke berrian ariketa aparatuak ipiniko dituzte pertsona helduentzat



Txapa-lantegi zaharra egon zen lekua atontzen ibili da udala azken hileotan. Lur azpiko pasabide alboan parke txiki bat ipini dute eta oinezkoentzat egokitu dute ingurunea. Horma-irudia margotu dute txapa-lantegi zaharra zegoen alboko etxean. Laster, batzoki aurrean atondu duten plaza biribilean lau ariketa aparatu ipiniko dituzte hirugarren adinekoentzat. ■ A.U.

Durungaldeko Baserritarren Elkartea

DIBA
KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

ONTRACK HIZKUNTZA ZERBITZUAK

- ARABIERA Hasierako maila. Urtarrilean.
- INGELESA Goi-mailako mintzamena.
- GAZTELANIA B1 eta B2 mailak.
- UDAKO EGONALDIAK
- INGALATERRAN (Plymouth, Exeter)
Ekaina-Uztaila. Adina: 12-19 urte.
- AMERIKETAKO ESTATU BATUAK (Oregon, Washington, Mid-West)
Uztailan. Adina: 15-19 urte.

2011 KO ESKAINTZAK
matrikulak zabalik

946 58 46 73 BERRIO-OTXOA 18, ELORRIO
WWW.ONTRACKENGLISH.COM

ATXONDO

Arrazolako lau apartamentu sozialak zozkatu dituzte

Etheen giltzak Aste Santua orduko banatzea aurreikusi dute udal arduradunek



Astelehen eguerdian egin zuten apartamentuen zozketa.

Astelehenean zozkatu dituzte Arrazolako apartamentu sozialak. Notario aurrean, hiru zerrenda osatu dituzte. Zerrendak udalean daude ikusgai, eta euren araberako lehentasuna izango dute izena eman dutenek etheen giltzak eskuratzeko.

Zozketan izena emateko baldintza bakarra Atxondon erroldatuta egotea izan da. Etxebizitza alokatu ahal izateko beste baldintza betetzen diren egiaztatu behar

dute orain. Horrela ez bada edo baten batek etxeari uko egiten badio, zerrendan hurrengo dagoenak izango du lehentasuna.

Etxeetako obrak Aste Santua orduko amaitzea itzaroten dute udal arduradunek. Orduan bost urteko alokairu kontratuak sinatuko dituzte, eta kontratua amaituta urteka berrizteko aukera izango dute. David Cobos alkateak bost urte barru Atxondon etxebizitza sozial gehiago egotea itzaroten du,

"herrian dagoen premiari erantzuteko".

Zalantza legalak

Eskatzaileen artean, alkatea eta zinegotzi bat daude. Cobosek azaldu du zalantza juridikoa dutela: "Galdetu behar dugu ea bateragarria den udal kargua izanda udalagaz etxebaten kontratua sinatzea. Dena dela, normalean irabazi ekonomikoak tartean dauden kontratuekin egoten da arazoa". ■ A.U.

MAÑARIA

Udala prezio tasatuko 24 etxebizitza eraikitzeke egitasmoa lantzen dabil

"Iturrietan, bertan behera utzitako harrobiaren inguruko lursailean" eraiki gura dituzte etxeak

Aurreko legegintzaldian ekin zion udalak herrian prezio tasatuko etxebizitzak eraikitzeke egitasmoa lantzeari. Alderdi jeltzaleko Uribelarrea bozeroaleak azaldu digunez, "Iturrieta auzoan, bertan behera lagata dagoen harrobiaren

Iturrietako lursail horretan, eraikin bi altzatzea da udal gobernuaren asmoa

ingurua berreskuratu eta etxebizitzak bertan eraikitzea" da udal gobernuak gauzatu gura duen proiektua. Egitasmoa garatu ahal izateko, azaldu digu Uribelarreak, "bideratu ditugu aurtengo udal aurrekontuko 39.000 euro: harrobiak hartzen zuen lursaila eraikigarri izendatzeko", Arau Ordezkatzaileak aldatu ahal izateko.

Lursail horretan, eraikin bi altzatzea da gobernu taldearen asmoa; bertan, 24 etxebizitza eraikitzea da egitasmoa, azaldu digunez. "Etxeri jabetzan ez duten herrian erroldatutako bizilagunek lukete lehentasuna", diotenez, eta beteko ez balira Durangaldeko gainerako herritarrek. ■ I.E.

ABADIÑO

Astelehenean zabalduko dute Txanporta berriztua

Berogailu sistema berritu dute, eta igogailua ere ipini dute Zelaietako Txanporta kultur etxean

Urtarrilaren 24an zabalduko dute azken sei hileetan bertan burutu dituzten lanengatik itxita egon den Zelaieta auzoko Txanporta kultur etxea. Udalak lanetara bideratu duen 90.000 euroko diru-atlagaz, besteak beste, igogailu berria ipini eta berogailua egoki-

tu dute; gobernu taldeak azpimarratu duenez, "ingurumenari ahalik eta kalte txikiena eragiten dion sistema" ezarri dute Zelaietako kultur etxean. "Mugikortasuna eta jasangarritasuna" aintzartaruta egindako lanak direla azpimarratu dute udal arduradunek.

Burutu dituzten lanon eraginez, azken hilabeteetan, bertan egin ohi dituzten ikastaroetako saioak lekualdatu dituzte. Luze barik, Txanportara lekualdatuko dituzte berriro. ■ I.E.

90.000 euroko diru-atala bideratuta finantzatu ditu Abadiñoko Udalak lanak



Azken sei hileetan jardun dute lanak burutzen.

Keinu hizkuntzaren oinarriak eskainiko dituen ikastaroa sei hileotarako

Interesa duena keinu hizkuntzaren oinarrietara gerturatzea helburu duen ikastaroa eskainiko du sei hileko honetan udalak. Marisa Vázquez zinegotziak dioenez, "gorren egoera hobeto ulertu eta parte-hartzaileak eurekin komunikatzeko gai izan daitezten" lortzea da antolatzaileen helburua. "Biztanleek euren denboralibrea jarduerara aberasgarriak burutzea

eta entzumen urritasuna duten pertsonen integrazioa bultzatzea" ere zehaztu dituzte ekimenaren jomuga nagusitzat. Otsailaren 8an hasi eta maiatzaren 19a arteko izango da ikastaroa.

Aipatutakoaz gainera, besteak beste, sukaldaritza, automakillajea, bitxigintza eta masajegintzari buruzko ikastaroetan ere eman daiteke izena. ■ I.E.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxe: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Bautistako
beherapenak



BEHERAPEN ERREALAK

Erregeei eskatu diegu gure erakustokiak BENETAN MERKATUTAKO
altzariz bete ditzaten.

% 70erainoko deskontuak, altzari-sorta aldatzeko.



urtarrilaren 7tik martxoaren 6a arteko edo izakinak amaitu arteko kanpaina

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

Urbitate poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

www.bautistamuebles.com

ELORRIO

Lapurreten aurrean neurriak hartzeko eskatu dute udalean

Udaltzainek gaueko zaintza egitea aztertzeko eskatu dute, besteak beste

Elorrioko 31 enpresak eta ostalarik idatzi bat aurkeztu dute udaletxean eta Durangoko Ertzaintzaren komisaldian, azken aldiaren emandako lapurreten aurrean neurriak hartzeko eskatuz. Idatzi batean jaso dutenez, 64 lapurreta gertatu dira enpresa, komertzio, ibilgailu eta etxebizitza partikularretan. "Segurtasunik eza" sentitzen dutela argudiatuta, hainbat neu-

rri proposatu dituzte: herrigunean zein industriagunean ibiliko den udaltzainen patruila iraunkorra, udaltzainen gaueko zaintza txanda eta beste polizia batzuekin adostutako elkarlan protokoloa.

Azken udalbatzarrean EAJK aspaldian "enpresa, denda, base-ri eta tabernetan lapurretek gora" egin dutela nabarmendu zuen: "Sasoi bateko datuek zioten delinkuentzia tasarik baxuenetako

herria ginela, baina susmoa dugu egoera hori aldatu egin dela".

Gobernu taldea batzeko prest Niko Moreno alkatearen esanetan, "idatzia sartu dutenekin batzartzeko asmoa dugu, zer egin daitekeen eta zer ez eztabaidatzeko". Hala ere, kontu horren gainean "gehiegizko alarma" sortu dela dio, eta EAJK gaiagaz egindako "erabiler politikoa" salatu du. ■ J.D.



Idatzian jaso dutenez, industriaguneetan ere egin dituzte lapurreta batzuk.

IZURTZA

Jaioberrien diru-laguntza arautuko duen ordenantza prestatzen dihardute

Udal gobernua prest dauka ordenantzaren zirriborroa, eta oposizioagaz landuko du orain

Hasi berri dugun urterako Udalararen aurrekontuetan 2.400 euroko diru-atala bideratu dute jaioberrien gurasoendako diru-laguntza kontzeptuan emateko. Diru-laguntzaren esleipena arautuko duen ordenantza prestatzen jardun

Azken urteetan Izurtzan bizi izana eta gutxienez beste urtebetean bertan bizitzea zehaztu dituzte baldintzat

du udal gobernua urte hasiera honetan. Ezker Abertzaleko gobernua azaldu duenez, ordenantzaren zirriborroa prest dute dagoneko, eta oposizio taldeari aurkeztuko diote proposamenalaster.

Eskatzaile bakoitzari 600 euroko diru-laguntza emango diotela jaso dute zirriborroan, eta eskatu ahal izateko baldintzak ere zehazten dituzte: azken urteetan Izurtzan bizi izana eta gutxienez beste urte batean bertan bizitzea jaso dute baldintza legez. ■ I.E.

DURANGO

Urtebeteko kartzela zigorra AHTaren kontra protestatzearen

Ordizian AHTaren kontrako protesta batean parte hartzeagatik gazte durangar batek epaiketa izan zuen, eguaztenean, Donostiako epaitegian. Polizia agente baten kontrako atentatua eta bide-segurtasuna arriskuan ipintzea egozten zizkion fiskalak, hiru urteko kartzela zigorra eskatuz. Azkenean urtebeteko zigorra adostu zuten alde biek, eta orduantxe bertan sinatu zuten akordioa.

Horiek horrela, suspentsioa eskatzeko aukera dute, beraz, gazte durangar horrek ez du kartzela zigorrik bete beharrik izango. ■ J.D.

GARAI

1.200 euro batu dituzte aurtengo Errematan

Caritas elkarteari emango diote zati bat; beste zatia elizako berogailuan inbertituko dute



Oilarragatik 70 euro ordaindu zituen herritar batek.

Astelehenean, San Anton egunez, egin zuten tradiziozko enkantea, giro bikainean. Asteguna izan arren, hamarnaka herritar hurre-ratu ziren San Juan ebanjelariaren elizara. Batutako diruaren zati bat Caritas elkarteari emango diote, eta beste zatia San Migel elizako berogailua konpontzeko erabiliko dute.

Ordu eta erditik gora ekin zioten eskaintzak egiteari, lagun arteko giro beroan

Oilarrak, untxiak, arrautzak, ogia, txorizoa... produktu sorta ez zen makala izan. 12:00etako mezaren ondoren, abadea elizatik irten eta inguruko lurak zein produktuak bedekintatu zituen. Gero hasi zen enkantea, eta ordu eta erditik gora eman zuten janari eta animaliak eskuratzeko eskaintzak egiten. 1.200 euro inguruko kopurua zen batuzuten azkenean. Lagun giroan, herritarren arteko lehia girorik ez zen falta izan, gainera. ■ M. Onaindia.

> Bideoa: www.anboto.org

Agustin Duran mundakarrak irabazi du autoa JAEDen aurtengo zozketan



JAEDeko ordezkari Carlos Frontauraren eskutik jaso du Agustin Duranek (51 urte) JAEDeko zozketa solidarioan irabazitako lehengo saria: Citroen C3a. Mundakarra izan arren, 16 urte dira Durangon bizi dela, eta urtero erosi ohi ditu zozketako txartelak. Aurten 12 txartel erosi ditu hiru alditan. Gainera, auto berria ederto etorriko zaie. Bere emazte Gloria Ozaetaren Ford Fiesta zaharra "jubilatuko" ei dute berria hartuta. ■ J.D.

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

Hemen agertu gura badozu

deitu!

94 621 79 02



Durungaldean labor

Herritarren ekarpenak Argiñeta turistikoki promozionatzeko

Elorrioko Argiñetako nekropoliaren eta bere inguruaren promozio turistiko nondik bideratu jakiteko herritarren iritziak batzen dihardu udalak. Horregatik, eguazten honetan batzar irekia egin zuten herritarren ekarpenak jasotzeko. Datorren astean ere batuko dira; urtarrilaren 26an, 19:30ean, Iturri kultur etxean ipini dute hitzordua, eta batzarrean parte hartzeko gonbita luzatu dute.

Elorrioko Sagastizabal denda saridun Komertzio Ganbaran

Bilboko Komertzio Ganbarak antolatu duen XXVII. Erakusleihen Lehiaketan Pedro Sagastizabalen Elorrioko Sagastizabal dendari diploma eman diote. Zuri kolorez atundu zuten dendako eskaparatea, elurra, hainbat neurritako hartz polarrak eta Gabonak iragartzen zituen bestelako apaindurekin. Bilbon egindako ekitaldian jaso zuten diploma.



Hezkuntza oinarri duten jardunaldiak

Durango, Pinondo etxean, hezkuntza oinarri duten jardunaldiak egingo dituzte eguaztenero, 19:30ean, martxo bitartean. Urtarrilaren 26an Yolanda Gonzalezekizaeraren etsipenak osasunean daukan eragina eta horrek dakartzan gizarte eta heziketa mailako ondorioak aztertuko ditu.

OTXANDIO

Saharauiek euren erralitatearen berri eman dute Gaztetxean

Hartu-emanak sendotzeko hitzaldia antolatu du Gazte Asanbladak



Hitzaldira eta ondorengo luntxera 40 bat lagun batu ziren Otxandioko Gaztetxean

Azkenaldian Saharako errealtate eta gatazka hedabideetan sarritan agertu denez, Otxandion saharauiak batzuk bizi direla aprobetxatuta, Gazte Asanbladak hango errealtatea eza-gutzeko eta hartu-emanak sendo-

tzeko ekitaldia prestatu zuen joan zen asteburuan. Lehenengo, Beñat Hachen Barekek hango datu adierazgarriak eta historia azaldu zituen. Ondoren, hainbat saharauiak euren bizipenak kontatu zituzten. Amaitzeko, luntxa egin

zuten, "elkar ezagutu eta harremanak sendotzeko", Irati Axpe Gazte Asanbladako kidearen esanetan.

Bestalde, gaur 18:00etan, umeei zuzendutako ekimenaren barruan, *Donkey Xote* filma eskainiko dute Gaztetxean. ■ J.D.

MALLABIA

Urte amaieratik Wi-Fi konexioa prest dago kultur etxean

Abendu amaieratik internetera konektatzeko Wi-Fi sistema martxan dago Mallabiko kultur etxean. Ordenagailu mugikorragaz kultur etxera doanak, ez du gakorik sartu beharko konektatzeko; pantailan agertuko zaion 'Mallabiko liburutegia' gakoak kopiatzea nahikoa da internetera konektatzeko.

Ez dute denbora tarterik mugatu; beraz, erabiltzaileak kultur etxera zabalik dagoen edozein ordutan (16:00etatik 20:00etara) erabili Wi-Fi sistema.

Dena dela, oraindik zehaztu bako arrazoiak medio, aste osoan zehar Wi-Fi sistema hondatuta egon da; ezin izan dira konektatu. Baliteke kultur etxearen ondoan egiten dabilzan obra batzuk izatea horren eragile. Hango arduradunek adierazi dutenez, "arazoa ahalik arinen konpondu dadin lanean" dihardute. ■ J.D.

ZALDIBAR

Lehia eta erakusketa hilaren 30eko Neguko Azokan

Baserriko produktuak, jende andana eta jai-giroa jasoko ditu hurrengo domekan, hilaren 30ean, Zaldibarko Euskal Herria kaleak. Dagoeneko 13. edizioa beteko du Neguko Azokak, eta izango da aurten ere zer ikusia: barazkiak, fruituak, okelagaz egindako produktuak, landareak,

Goizeko 11:00etan zabalduko dute azoka herritarrentzat

txakolina, ogia, gozoak, ezta eta gazta izango dira bertan salgai, besteak beste.

Gainera, erakusketaz aparte lehiaketa ere ez da faltako. Goizeko 10:00etan hasiko da epaimahaia beharrez, eta 11:00etan zabalduko da azoka herritarrentzat. 14:00etan izango da sari-banaketa. ■ M.O.

BERRIZ

Parekidetasuna eta karnabalak batuko dituzte aurtengo kartel lehiaketan

Martxoaren 8a aurten karnabalen bueltan denez, lehiaketako gaia mozorroen jaia ere izango da

Emakumeen Nazioarteko Egunerako III. Kartel Lehiaketa eratu du Berrizko Udalak. Aurtengo edizioan, ihauteri jaiekin bat eginez, egunari lotuta egingo diren ekitaldiak iragartzeko kartelak karnabalak ere hartuko ditu oinarrian.

Adin guztietako emakume eta gizonek izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera, eta bana-ka zein taldeka ere aurkeztu daitezke lanak. Sariak, hala ere, bi

izango dira, bi maila bereiztu dituzte-eta: nagusia 300 eurokoa izango da, eta bigarren hezkuntzako ikasleen arteko lan onenak ebook bat izango du ordainetan.

Lanak udaletxean aurkeztu behar dira, otsailaren 8rako. Egile bakoitzak jatorrizko eta argitaratu bako hiru kartel aurkeztu ahal izango ditu, gehienez. Berrizko Udaleko Berdintasun Sailak eratu du ekimena. ■ M.O.

Sanantonio jaiei amaiera emango diete asteburuan

Olinpiadak, erromeria, pilota partiduak, sagardotegi-ibiltaria, dantzak, barazki eta fruituen erakusketa... jaiez ederto gozatu zuten berriztarrek joan zen asteburuan. Ekitaldiei dagokienez, beteena ez izan arren, asteburu honetan ere badago Sanantonioez gozatzeko aukera. Gaur hasi eta astelehenera bitartean, idi-proben sariketa nagusia jokatuko dute, eta astelehenean amaituko da festa. Iluntzeko 20:30ean Donien-atxa kenduko dute, eta horren ondoren, 21:00etan, Olakuetarren afaria izango da.



Datorren astelehenean amaituko dira jaiak. Peio Agirre

MOMOTXO TABERNA
Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

BILBAO ASEGURUAK | Group CATALANA OCCIDENTE
Jabier Rueda
Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

Betikoak flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente kapanaga, 9 • 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

BERBAZ >

“Ona da jentea konfiantzaz hurreratzea; zer pentsatzen duten jakin gura dut”

Martxoan kultur etxea inauguratzeko moduan egongo direla azaldu digu Gontzal Sarrigoitia Garaiko alkateak

Duela lau urte itxaroten ez bazuen ere, Garaiko alkate da Gontzal Sarrigoitia. Herriko aldaketaz eta momentuko ardu-rez berba egin dugu beragaz.

Azken lau urteei begira, zelan baloratzen duzu udalean egindako beharra?

Horrenbeste urte oposizioan eginda, bere garaian sorpresa izan zen alkate-tza hartzea. Orain balorazio ona egiten dugu. Alkatetza hartu genuenean beldurra geneukan, ez ote ziren Garairako diru-laguntzak murriztuko, baina ez da horrela izan. Astiro-astiro bagabil-tza gauzak egiten; plaza inguruan aparkalekuak ipini ditugu, espaloia ere bai, kultur etxea amaitzen gabiltza, baserrietarako bide batzuk konpondu ditugu, eliza inguruan farolak aldatu... Nik pentsatzen dut, denbora kontuan izanda, nahikoa gauza egin dugula.

“Udalan daroagun denborarako, gauza nahiko egin dugu”

Aipatu duzu oposizioan urte asko egin zenutela. Orain, oposizioagaz, EAJgaz, zelan konpontzen zarete?

Hartu-eman ona daukagu. Alkatetzan egon aurretik 16 urte egin ditut oposizioan, eta orduan ere beti izan dugu tratu ona. Nire helburua beti izan da hori; egiten duguna denon artean berba eginda egitea, ezer gordetzen ibili barik, eta ondo.

Zelan bizi duzu Garaiko alkate izatea?

Egindako denak ez dira izaten denen gustokoak, eta kexak egon dira; baina, osterantzean, pozik. Herri handietan ez dira joango alkatearengana, baina niri tabernan elkartu eta etortzen zaizkit: “Hau zelan egin dok holan”; “Hau txarto ein dok”... Konfiantza dago, eta nik ere gurago dut jendeak zer pentsatzen duen jakitea.

Kultur etxearen proiektua da herriko nagusienetakoa. Zelan doaz beharrak?

Igogailua ipini genuen, eta barrua atontzen ibili gara. Lehen irakasleen pisuak zirenetan lokal bi ipini ditugu; bata gazteek entseatzeko eta bestea bihar-etzi pelikulak emateko. Goiko pisura KZgunea eroango dugu, eta beste lokal bat ere egongo da jubilatuek, gazteek, jai-batzordekoek... batzarrak egiteko. Beste gela bi gertzen dira; bata batzarretarako izan daiteke, eta bestean liburutegia ipiniko



“Zaborrontziekin arazoak izango ditugu, eta lurpekoen ordez kanpokoak ipini beharko ditugu laster”

dugu. Obrak amaituta daude; altzariak ipintzea baino ez da falta. Martxoan inauguratzeko moduan egongo delakoan gaude.

Plaza inguruko urbanizazioa ere egin duzue. Herritarrak pozik daude?

Denak pozik sekula ezin dira eduki, baina nik pentsatzen dut plaza dotore dagoela orain. Asko ohituta egon dira herrira etorri eta kotxea taberna ondoan uztera, baina pentsatzen dut

herrikoentzat eta kanpokoentzat ere hobeto dagoela orain aparkalekuen kontua.

Txarto aparkatzeagatik abisuak ematen hasi zineten orain hile batzuk.

Ertzainak pasatu ziren behin, eta autobus geltokian isunak ipini zituzten; justu herritarren kotxeak izan ziren. Abisua botatzen hasi ginen txarto aparkatuz gero bihar-etzi isunak ipin-

Gontzal Sarrigoitia •

Garaiko alkatea

- 56 urte ditu
- Herriko Taldeko kidea

“Aldundiak autobusaren ordez kotxea ipintzea proposatu digu”

tzen hasiko ginela esanez. Multarik ez dugu bota, baina ertzainek berriro ipini ditzakete.

Autobus zerbitzua zelan dabil?


Autobusean jende gutxi dabilela-eta, orain dela hiru hile inguru Foru Aldunditik zerbitzu hori kotxe batek egitea proposatu ziguten, ordutegi beragaz. Guk komentatu genien ondo egon zitekeela, baina ziurtatzeko kotxea beteta badago ez dadila inor geratu bajatu edo igo barik; beste kotxe bati deitzeko aukera egon dadila. Oraindik ez digute erantzun.

Kamioien joan-etorria handia da zuenean. Herritarrak arduratuta daude?

Bai. Lehenago beste kamioi ez dabil, baina lehenago euriagaz geratu egiten ziren; orain ez. Ibiltzen dira garbitzen, baina guztiz lokaztuta egoten da euria egiten duenean. Txarrago daude Gerediagakoak; guk bide bat baino gehiago daukagu baina eurak handik baino ezin dira pasatu.

Zer behar daukazue orain esku artean?

Laster udaletxeko teilatua konpondu gura dugu, itoginak dauzkagu-eta. Arkitektoak proiektua egin du eta diru-laguntzak eskatzen gaude. Zaborrontzi berriak ere ipini beharko ditugu. Arazoa dugu hor: lurpeko lehenengo zakarontziak hemen eta Elorrioren ipini genituen. Orain, berriagoekin, laster kamioiek ez dute balioko guk dauzkagun zaborrontzietarako. Ez daukagu berriak ipintzeko lekurik eta garestiak dira. Azkenean, segururik, kanpoko zaborrontziak ipiniko ditugu, nahiz eta polita ez izan. Kamioiak pasatzen diren lekuan, euren ibilbidean hartzeko moduan ipiniko ditugu. Farola berriak ere ipini behar ditugu Milikuan, San Juanen eta plazan. ■ A.Ugalde



H O B E T U Z

Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua
Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa



2010-2011 IKASTURTEKO IKASTAROEN ESKAINTZA

HOBETUZ FUNDAZIOAK DIRUZ LAGUNDUTAKO ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO IKASTAROAK

- **NON:** Ibaizabal Ikastolan • **NOIZ:** Urtarriletik aurrera • **Orduategia:** 17:00-19:00
- **NORENTZAT:** Lanean dagoen edozeinentzat eta langabetuentzat

IKASTAROAK	ORDU KOP.	HASIERA DATA
Haur eta Lehen Hezkuntzarako aplikazio informatikoen erabilpena. Irudia, ahotsa eta bideoaren trataera	20	2011ko martxoa
Haur Masaje ikastaroa hezitzaileentzat	20	2011ko martxoa
Haur Masaje ikastaroa gurasoentzat	10	2011ko martxoa
Ipuin kontaketa ikastaroa hezitzaileentzat	30	2011ko martxoa
Ipuin kontaketa ikastaroa gurasoentzat	10	2011ko martxoa
Psikomotrizitate saioak, 0-3 urteko umeekin lantzeko (hezitzaileentzako)	25	2011ko martxoa
Lehen sorospenak hezkuntza esparruan aplikatuz	15	2011ko martxoa
Jarrera Posturala: lanpostuan lesioak ekiditeko jarrera egokiak ikastea	15	2011ko otsaila
Ikasgelarako aplikazio informatikoen erabilpena (irakasleentzako)	30	2011ko otsaila

- Doakoak dira
- Matrikula egiteko epea: **Urtarrilak 31** baino lehen
- Ikastaro hauei buruzko informazio zehatzagoa nahi baduzu sartu gure web orrian: www.ibaizabalikastola.org, deitu ikastolara: **94 621 58 77** edo emaila bidali: idazkaritza@ibaizabalikastola.org-ra

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak

Abadiñoko "bidegorrian" barrena!

Bidegorriak (ez gorritz margoztutako bideak), mugikortasun jasangarria lortzeko asmoz sorturiko beste hainbat bitarteko bezala gustuko ditudan aldetik, ilusioz jaso nuen Abadiñoko udal gobernua era horretako egitasmo bat aurrera eramateko hau-tua egin izana.

Zoritxarrez, etxetik txirringarekin irten eta bidegorrian barrena ari nintzela hainbat gune kezagarri ikusi nituen:

Astolako zubian, ibilgailuak eta bizikletak bide berberetik igarotzeko aukera besterik ez dute, eta egoera zinez arriskutsuak sor daitezke.

Astolako erretegien parean, bidegorria errepidearen erdi-erditik dago marraztua, honen alboetan ibilgailuentzako geratzen den tokia oso murrizta delarik. Zer gertatzen da aurretik kamioi bat eta atzetik auto bat hurbiltzen zaizkizunean? Ez al litzateke hobe espaloien parean kokatu izana, gure segurtasuna bermatuz?

Auzo berberetik, Zelaietara hurbildu nahi izanez gero, bidegorria igerilekuan bukatzen dela ikus daiteke. Nondik jarraitu behar da? Ezinezkoa al da auzo biak batuko dituen bidea osatea? Bestela ere, hainbeste eskatzea litzateke bidea bukatu eta

hurrengo zonaldera arte nondik joan adieraziko lukeen panela jartzea?

Zelaietara iritsi orduko, 200 bat metroko bidegorri isolatu bat ikus daiteke, beste ezerekin inolako loturarik ez duena. Zoa-zen norantzan zoazela ere, nondik jo behar da bidegorriarekin bat egiteko? Zergatik ez da sarearen plano orokor bat ipintzen gisa horretako guneetan?

Aipaturikoaz gain, hiru auzo jendetsuenak era jarraitu batean lotzen ez dituen eta gainontzeko auzoekin loturarik ez duen "bidegorriaz", itxurakeriaren ikuspegitik gauzaturako "proiektu" baten ondorio dela deritzot.

Nire ustez, mugikortasun jasangarriagoa lortzeko, alternati-ba benetan errealak sortzeko bidean, behar duen garrantzia eta seriotasuna eman behar zaio era honetako azpiegiturak proiektatzeko faseari. Txirringa, lanera edo beste zenbait lekutara joa-teko garraio bezala bultzatu nahi baldin badugu, nahitaezkoa da herrian eta eskualdeko beste herriekin koordinatuz bidegorri sare integrala eratzea. Horretarako, baina, gaia sakontasunez landu egin behar da, eta honetan ere, beste hainbat esparrutan bezala, Abadiñoko Independenteeek beraien gaitasun eza agerian utzi dute.

Mikel Urrutia - Abadiño



Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia
helarazteko helbideak:**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten ize-
nean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz
zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia



Niko Moreno
Ezker Abertzalea

Ados nago

Batzuen ustez ez da nahikoa ETAK azken agirian adierazita-koa. Ados nago. Akaso nahikoa litzateke soilik Ezker Abertzalearen egitura politikoa berria legezatzatzea? Hori ere "ez nahikoa" litzateke. Eznahikotasun hori, beste urrats batzuekin osatu daiteke. Eznahikoa litzateke Euskal Herrian eskubide zibil eta politikoa aitortzea eta Alderdi Politikoen Legea indargabetzea.

Eznahikoa da inoren aurkako mehatxua eta jazarpena, atxiloketa eta tortura desager-tzea, hala nola euskal preso politikoen aurka aplikatzen den espetxe politika etetea ere. Hori baino ez suertatuz gero, ondo, baina ez nahikoa.

Ados nago eta ez da nahi-koa euren jardura politikoa-gatik epaituak izan direnen aurkako prozesuak berraztertzea.

Edo inork uste al du nahi-koa litzatekeela euskadunon-tzako jurisdikzio eta epaitegi bereziak eta salbuespeneko legeak indargabetzea iragar-tzea? Ez dut uste, eta hori ere eznahikoa delakoan nago.

Konformatuko ginatete militante eta erakunde inde-pendentistei politikan aritzeko ezarri zaizkien debeku eta neu-ri murriztaileak bertan behe-ra utziz gero? Ez dut uste, eznahikoa baita neurri hori.

Eta, azkenik, prozesu demokratiko bat abiarazteko, nahikoa da soilik nazioarteko eragileen parte-hartzea susta-tzea giza eskubideen urraketa-rik gertatzen ez dela egiaztatze-ko? Ez, eta eznahikoa dela erraz argudiatu daiteke.

Baina eznahiko diren urrats horiek guztiek norabide berean emanez gero, euskal gatazka konpondu eta konfron-tazioa soilik demokratikoa emanez gero, ziur egoera zeharo ezberdinean geundeekeela.

Batzuk urrats eznahikoak ematen ari gara, baina bagabil-tza. Beste batzuei dagokie eznahikoak diren urratsak emotea. Baina geldidatzen. Mugia-razi ditzagun. Denon kontua da, guztion onerako.



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko urtarrilaren 21a - 9. urtea - 400 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA

MARGOGINTZA > ERAKUSKETA



“Errealitatea ahalik eta artifizio gutxienekin margotu gura dut”

Granadako Alhambra jauregiaren ikuspegiak dira urtarrilaren 23ra arte Durangoko Ezkurdiko erakusketa aretoan dagoen bilduman ikusgai ipinitako zenbait koadro: lanok osatzeko, “bidaiatzeak besteko garrantzia dauka eguneroko errealitateari begiratzen jakiteak”, jaso dugu **Xabier Gaztelumendi** egilearen berbetan

Zelan sortu zaizu zure lana Durangon erakusteko aukera? Durangaldeko Artisten Elkartearen eskaintzari eskerrak antolatuta ahal izan dut erakusketa. Berezia da niretzat, bakarkako lehenengo erakusketa dudalako. Lehenago taldeko erakusketetan hartu izan dut parte Madrilen, baina nire lehenengo bakarkakoa da.

Noiztik margozten duzu? Zelan sortu zitzaizun harra? Txikitatik eduki dut, egia esan, margogintzarako zaletasuna eta interesa. Umetan gogoko izan dudana hori laster lanbide bilakatzeko da daukadan helburua. Dena dela, gaitz egiten zait margotzea zergatik dudana gogoko azaltzea.

“Lehenago taldeko erakusketetan hartu dut parte; bakarka hau da lehenengoa”

Egia da gurasoek beti gerturatu izan nautela umetan artera eta museoetara; artearen historialariak dira biak.

Etxean jaso izan duzu, beraz, zaletasuna?

Gurasoen eraginaz gainera, margolari oso ona zen Ignacio Gaztelumendi osabaren influentzia ere jaso dut. Giro horretan hazi naiz, eta inork bultzatu barik murgildu naiz mundu honetan, zaletasun bilakatu zaidalako.

Artelanen zaharberritzearen arloan gura duzu lan egin...

Bai, izan ere, orainxe bukatu ditut Ondare Kulturalaren Zaharberritzearen gaineko ikasketak, eta lan bila dihardut. Madrilen egin ditut ikasketak, eta bertan bizi naiz.

Zaharberritze ikasketekin uztartu dituzu margogintzako ikasketak ere azken urteotan...

Muñoz Vera margolari handiaren ikasle izandako lau irakasle behar egiten duten eskola batean nabil azken urte bietan: pintura erreala-

“Gurasoenaz gainera, Ignacio Gaztelumendi osaba margolariaren eragina ere jaso dut”

lista lantzen dut eurekin: errealtatea ahalik eta artifizio gutxienekin margotzean datzan teknikan trebatzen dihardut. Gauzak ikusten dituzun eran margotzea da teknikaren ardatza; egunaren argitasuna islatzerakoan, esaterako, koadroak errealitateagaz ahalik eta antz handiena izan dezan bilatzea.

Hiriko, kostaldeko zein lorategietako ikuspegiak eta erretratuak ikusgai

Formatu handiko lanak kalean, margoz hartutako “apunteetatik” edo berak egindako argazkietatik abiatzen ditu Xabier Gaztelumendi 26 urteko margolariak. Margotuko duen paisaia edo objektuaren argazkia egiten du zenbaitetan, bere berbetan jaso dugunez, hautatu duen une horretan, argia, esaterako, zelakoa den gordetzeko: “berde hau saturatuagoa zen”, ohartu eta aldatzeko, adibidez.

Arkupean Granada ikusten den Alhambra irudia, Parisko metroan egindakoa, Madrilgo Kale Nagusikoa, bere txakurra eta beste hainbat bildu ditu Gaztelumendik Ezkurdiko aretoko erakusketarako.

Bilatzen duena ez dela berri-tzaileena izatea azaldu digu margolari gazteak, bestelakoak direla bere erreferenteak: XIX. mendean, “Sorollak edo Fortunyk zelan margotzen zuten berrekus-

Zelakoa izaten da margolan bat osatzeko sormen prozesua?

Gehienetan orban zehazgabe batetik abiatzen dut irudia: gutxi-naka joaten da koadroa itxura hartzen. Prozesuaren amaieran, bestalde, xehetasunak lantzen dira gehiago: irudian botila bat agertzen bada, esaterako, etiketa ahalik eta modurik errealistenean islatzen saiatzea da azkeneko pausua. Pixelak irekiegiak dituen argazki batean geroago eta araztasun handiagoa lortzearen antza izan dezake sormen prozesuak.

“Gehienetan orban zehazgabe batetik abiatzen dut irudia, eta gero zehaztu”

Produktzio handiko margolaria zarela erakusten du bilduma honek: 30 koadro sei hilean.

Aldi berean hainbat proiektu esku artean izatea da egiten dudana. Ez da olagarro baten moduan esku bakoitzagaz gauza bat egiten dudala, ez. Pinturak lehortzeko behar duten denboraren eragina da: pintura freskoagaz egiten dut lan, eta margotzen jarraitu ahal izateko aurreko pintura geruza sika-tzea behar izaten duzu.

Sormen prozesuaren zer unetan disfrutatzen duzu gehien?

Ia batean ere ezetz esango nuke... Lana bukatzerakoan gura nebana lortu dudala sentitzen dudanean, orduantxe gozatzen dut. Margotzea borroka baten antzekoa izaten da nire kasuan;—ni ez nau batere erlaxatzen margotzeak. Ikusten dudana ahalik eta modurik egiazkoenean islatuz, leku edo objektu horrek niri sentiarazten didana transmititzea izaten da helburua. Pinturaren alde onena eta txarrena, erronka pertsonala izatea da: nire kasuan erronka, egunen batean onentzat ditudan pintoreek bezala margotzea da. ■ I.E.

ratzen saiatzea da niretzat helburua; margolana teknikoki ondo egitea eta ikusten duenari zerbait transmititzea”.

Koadroetako irudiek misterioa iradoki dezala gustatzen zaiola dio artistak. Beharbada horregatik ez dela jenderik ageri hiriko irudietan, eta bai kea...

Salgai daude erakusketako lanetarikoz zenbait, eta sarean, www.xabiergaztelumendi.jimdo.com helbidean ikusgai.

ANTZERKIA > EMANALDIA

Gorakadak abenduan estreinatu zuen 'Ogro txikia'-ren ibilerak

Abenduan Durangoko San Agustinen aurkeztu zuten lana, urtarrilaren 28an, Berrizen

Urtarrilaren 28an, 18:00etan hasita, Berrizko Kultur Etxean gozagai izango da eszenan Iñake Iratorza, Haritza Rodriguez zaldibartarra eta Javi Tirado aktoreak dituen *Ogro txikia*. Abenduan, Durangoko San Agustín kulturgunean estreinatu zuten lan berria, eta Gorakadaren eskarmentu handiko lantaldeak burutu duen lanaren "ausardia" nabarmendu zuten, antzezlanaren aurkezpenean. Datozen hileetan, Durangaldeko hainbat aretoan izango da *Ogro txikia*.

Agurtzane Intxaurreaga eta Arantza Iturbek moldaturikoa da umeei zuzenduriko antzezlanei dagokienez nazioartean gehien itzulia den Suzanne Lebeau Quebeck-eko antzerkigileak 1997an



Suzanne Lebeau
1997an idatzi zuen obraren moldaketa

argitaratu zuen testua. Besteak beste, askatasunari, arazoei aurre egiteari, desberdinen arteko berdintasunari, beldurrari... buruzko gogoetak biltzen ditu. ■ I.E.

ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETAK

Argazki erakusketa bana Abadiñon eta Berrizen

Umeen erretratuak biltzen ditu Abadiñoko Errota kultur etxeko erakusketak, eta kontzertuetako irudiak Berrizko



Peio Agirre argazkizale berriztarrak kontzerturik kontzertu—Durangaldeko oholtzetan sarri—egindako argazkiak dira Berrizko Kultur Etxean urte hasiera honetan ikusgai izango direnak. Gaur zabalduko dute ahotan darabilgun *Rock & foto* izeneko erakusketa. Durangaldeko hainbat musika talderen kontzertuak kameragaz bildu eta gorde ditu Agirrek, eta argazkizale guztien bistara, ikusgai ipini bere herriko kultur etxean.

Monica Aldana argazkilari bilbotarraren erakusketa da, bestalde, Traña-Matienako Errota kultur etxean, urtarrilaren 29a arte ikusgai izango duguna. Argazkilari bilbotarrak umeei eginko erre-

Peio Agirre argazkizaleak kontzertuetan egindako argazkiak Berrizen

tratuak dira erakusketa osatzen duten irudiak. Hain zuzen ere, umeei argazkiak egiten eskarmentu handikoa da egile bilbotarra, eta *La mirada de la inocencia* izena du Abadiñoko Errota kultur etxera ekarri duen argazki bildumak.

Herritar guztiak Kultur Etxeko erakusketara bisita egin dezaten gonbidatu ditu Vazquez kultura zinegotziak, bere berbetan, "samurtasun handiko argazkiak, oso hunkigarriak" baitira.

Monica Aldana argazkilari bilbotarraren erakusketa Matienako Errotan

Bigarrenez, lehiaketa
Otsail hasierako San Blas jai egunaren bueltan antolatu dute Abadiñon, bigarrenez, argazki lehiaketa. Aurreko hamabost urteetan argazki rally izandakoaren formatua iaz aldatu zuten, eta ohiko lehiaketa bilakatu. Iaz legez, aurtentzen ere San Blas jai egunagaz zerikusia duten argazkiak aurkeztu beharko dituzte otsailaren 11 baino lehenago, Errotan edo Mediatekan, parte-hartzaileek. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA

Iñaki Etxezarraga "Etxe"
Musikaria



Eta hamarkada honetan zer?

Garagardo larregi hartuta, hanka batek besteari baimena eskatuz, Goienkaleko taberna denak zapaldu genduzen. Egia esan, zapaturoko ohiturak ezin dira galdu, baina gero eta gitxiago egiten dogu. Eta beste gauza asko geroago eta gitxiago egiten doguz.

Ez gara horrenbeste joaten zinera, ez gara kontzertuetara joaten, ez doguz CDak erosten... Eta ez da krisiaren eraginez.

Azkenaldian gazteen artean ohitura aldaketak emon dira. Poteoa egin beharrean "botelloia" egiten dabe, eta CDak erosi beharrean internetetik jaisten ditue kantak. Tabernarietarako tragu gitxiago eta musikariok disko gitxiago saltzen dogu. Eta kontzertuetara joatea ere...

Aitortu beharra daukat ni ere geroago eta gitxiago animatzen naizela kontzertuetara. Baina zeren ondorio ete da aldaketa hori. Irratietan geroago eta euskal musika gitxiago entzuten da. Gazteek geroago eta kanpoko musika gehiago entzuten dabe. Zer joera izango du euskal musikak?

Berrizen, adibidez, duela hamar urtetik hona talde berri asko sortu da. Baina talde bakoitzeko partaideak ikusita jende berri gitxi sartu da musika munduan. Lehen gazteenak 15 urte zeukazen, eta orain 20tik gora. Beraz, belaunaldi aldaketak zer ekarriko ete dau?

70eko, 80ko eta 90eko hamarkadak musikan oso aberatsak izan dira. 2000. urtetik aurrera beherakada nabarmena egon da.

Zer izango da hemendik aurrera?

DOKUMENTALA > EMANALDIA

'La plaza de la música', amiantoaren ondorioez

Urtarrilaren 25ean, 19:00etan, Elorrioko Iturri kultur etxean emango dute Juanmi Gutierrezen dokumentala

Elorrixa ekologia taldeak antolatuturikoa da, urtarrilaren 25eko Elorrioko Iturri kultur etxeko *La plaza de la música* filmaren emanaldia. Amiantoaren arriskuen gainekoa da Juanmi Gutierrez zuzendariaren lana; egunerokoan edo lantokian amiantoagaz kontaktuan egon direlako "biktima

bilakatutako lagunen borrokaren, helburu eta traben kontaktuzuna". Adituen, sindikalisten, erakundeetako ordezkarien eta enpresariaren iritzia jaso ditu filmak. Emanaldiaren ondoren, CCOOko Lan Osasuneko arduradunaren berbaldia izango da Elorrioko Iturri kultur etxean. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 22 19:30ean
DURANGALDEKO SURF JAIALDIA
FILM DOKUMENTALAK & MUSIKA
22:00etan THE LOONVAGOS + DJ FEST
JAIALDIA. Sarrera doan.

URTARRILAK 28 22:00etan
ULANAH
EUSKAL BALKAN FOLK MUSIC
KONTZERTUA. Sarrera doan.

URTARRILAK 29 22:00etan
AMA SAY + R + GORA JAPON
KONTZERTUA. Sarrera + CD: 10euro.

Eguneko menua asteleheneretik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

MIGUEL HERNANDEZ
Teatro Meridional (Madrid)
Urtarrilak 22 • 20:00

MAPS
Nats Nus Danza (Cataluña)
Urtarrilak 23 • 18:00

San Agustín
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11.94 601 07 76 Artekale, 11 Durango



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.



Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.

Hemen agertu gura badozu,

DEITU

94 621 79 02

DANBAKA >

Xarma irabazle Danbaka IV. Lehiaketan

Ondarrutarrentzat izan da saria; abesti landu, indartsu eta zuzeneko tinkoa izan da garai-le. Ezin esan, baina, beste taldeek duten onena eman ez dutenik. Despreziokoak txukun eta detaileak gehiago zainduta etorri dira, eta Lord Witcheko enikuskizuna gogoangarria izan da, ez bada Danbakako ikuskizunik onena izan. Giro bikaina, hiru talde bikain, baina txapel-dun bakarra: Xarma

*** Talde irabazlea:**

Xarma (Diskoa grabatuko dute)

*** Debagoieneko talderik onena:**

Lord Witch (bideoklipa grabatuko dute)



XARMA

Xarma eta tinkotasun betez ekin zioten emanaldiari. Hasiera-hasieratik konbentzitu gintuzten ondarrutarrek: bizi, indartsu, erritmo erakargarriekin eta entzuleak eurek nahi zuten bidetik eramanez. Gozatuz eginiko bidea izan zen, gainera, ikusleei ere gozaraziz. Erabat bete zuten agertokia, baxu-jolea ia kabituz ezinka eta talde osoa ere erraldoi. Abantaila zeukaten garapen handiko abestiak dituztelako, eta horrek berez duen indarrak ez du hutsik egiten. Ahalegina ere handia egin zuten ondo girotu eta agertokiaz gain aretoaz jabetzeko. Kutsatu zuten azkenean euren xarma hori tinkotasun tematiz. Aurreko saioko eragozpen tekniko barik, Danbakara erakustera etorritako maila eman dute.



LORD WITCH

Sekulako harrera beroa egin zieten zale eta lagunek Lord Witchekoei. Taldea ere guztia emateko gertu etorri zen, garaipenerako prest. Agertokiratze handia, ke eta guzti, eszenatokia euren modura moldatuta. Txalo eta oihuen artean sartu ziren kideak oholtzara. Segundu bat bera ere ez zuten itxaron ikuskizun osoa emateko. Ikusleak euren menpe, eta egurra banatuta. Daukaten maila teknikoaz gutxi dago eransteko, guztiz kontrolpean daukaten arloa da-eta. Gauzak horrela, ikuskizuna eskaintzera eta zaleak gozaraztera dedikatu ziren lehen segundutik. Metal festa itzela izan zen Lord Witchekoena, jotzen azkenak izanik ere inortxo ere ez loak hartzeko modukoa, punteoen eromen guztiarekin. Ereserki moduan planteatzen dituzte abestiak, eta baita bizi ere. Bikainak hasieratik amaierara arte, mitikoa.



DESPREZIO

Epaimahaiak Despreziokoaren freskotasuna nabarmenduta ere, ez zen erraza final baten, ikusleek begi eta belarri guztiak erne, lehenengoko egunean bezala jardutea. Oraingoan baliteke uzkur samar hasi izana; minutu batzuk behar izatea beroketarako. Abesti bakar baten kontua izan zen azkenean, eta ikusle-entzako pare bat. Azkenean oholtza gainean zein aurrean, ondo girotuta neurri ona hartuta egin zuten saioa Despreziokoek. Hiru akorde eta jarrera, horixe izan da euren premisa, finalerako bidea ireki diena eta finalean ere baleko saioa egitera eraman dituen. Baliteke oraingoan "sosotxoago" jardun izana, baina, kontrastana badirudi ere, gogotsuago ikusi genituen, arreta handiagoarekin jotzen, kontzentratuago. Aurreko saiotik alde eta garapena horretan ikusi zen.

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



KIROLAK >

Iurretako-Zaldua, igoera postuan daudenen arteko derbia bihar

Azken urteetan igoera gertu izan duen Iurretako liderrak mailako sorpresarik handiena bilakatu den Zaldua bigarren sailkatuaren kontra jokatu du bihar Arripausuetan



Iurretakok lidertzan sendotu gura du, eta Zalduak sailkapenean puntu bakarrera duen Lekeitio aldendu. Juanra de la Cruz

Derbi guztiek dute euren mamia, baina bihar Iurretako eta Zaldua neurtuko dituena berezia da. Izan ere, sailkapeneko lehenengoa eta bigarrena lehiatuko dira; igoera postuetan dauden talde biak, alegia.

Iurretako izango da faborito, orain arteko ibilbidea edonor beldurtzeko modukoa delako. Hamasei jardunaldi joan direnean, oraindik ez dute partidurik galdu, eta lehenengo erregionalean golik gehien sartu eta gutxien jasotzen dutenak dira. Liga hasieran "baloiak ez zuen sartu gura", gogoratu du Jon

Gurutz Vazquez entrenatzaileak, eta "puntu baliotsu batzuk galdu genituen". Iurretarren haserrea lbarsusik ordaindu zuen (8-0), eta harrezkero abiada bizian dira. Azkeneko lau denboraldietan lehenengo lauren artean (birritan hirugarren) sailkatu dira, igoera hatz puntekin ukitu dutela. Aurten lortuko dutela dirudi, baina "ederto eskarmentatuta gaude, eta gure burua beti hurrengo partiduan dago, ez harago".

Zalduaren ibilbidea ere azpimarratzeko modukoa da. Liga osoan partidu bi bakarrik galdu dituzte -bana etxean eta

kanpoan- eta golik gehien sartu eta gutxien jaso duten bigarrenak dira. Helduleku moduan, beste datu bat: egia da Iurretakok ez duela etxean partidurik galdu, baina zortiztik lau berdindu egin ditu.

Iñaki Garcia entrenatzailea gustura dago orain arteko lanagaz, izan ere, "iaz baino hobeto ibiltzea itxaroten nuen, baina ez hain goian ere". Aurten bigarren taldea sortu du Zalduak -hirugarren erregionalekoa- eta asmatu ei dute: "Jokalarik gehiegok jokatu dezakete eta maila orokorra hobetzen da". ■ J.D.

Iurretako igoeraren atarian geratu da azken urteetan

Zaldua inork itxaroten zuen baino maila hobea erakusten dabil

680 kilotan txapela jantzi du Abadiñok

Zortziko txapelketa goi mailan hasi du sokatira taldeak; tiraldi bakarra galdu zuten finalean

Joan zen asteburuan Durango-ko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan goma gaineko zortziko txapelketa hasi zuten, 680 kilora arteko finalagaz. Aurretik, lauko txapelketan, uste zen besteko errendimendurik eskaini ez eta hasieran "urduri samar" zeudela onartu du Edu Mendizabalek, Abadiño sokatira taldeko entrenatzaileak. Hala ere, txapelketa-ko tiraldi guztiak irabazi zituzten, bat kenduta: Sokarriren kontra-

koa. Ondorioz, merezitako txapela jantzi zuten, pilotalekura bertaratu ziren zaleen txaloen artean. Emakumeetan Badaioz-tek irabazi zuen txapelketa.

Zapatu honetan, 640 kilora arteko txapelketa sailkapen fasea hasiko du Abadiñok. Lehenengo jardunaldia Ezpeletan jokatu da, eta bigarrena (hurrengo zapatuan) Ibarren. Finala Zeberion jokatu dute otsailaren 4an. ■ J.D.

Diez Arriola kantabriarra garaile Berrizko proban

Aitor Hernández sailkatu zen bigarren tokian; 23 urtez azpikoa Insaustik irabazi zuen

Berrizko Bizikletari Elkarteak antolatutako ziklo-kros lasterketa Jose Antonio Díez kantabriarra irabazi zuen gizonetan, 55.43ko denboragaz. Aitor Hernández bigarren sailkatuari 52 segundoko aldea atera zion, eta Jon Ander Insausti hirugarrenari bi minutu eta erdi pasatxokoa. Insausti izan zen 23 urtez azpiko lehenengoa. Hiru met taldeko Dani Ruiz hirugarren geratu zen maila horretan.

Emakumeetan Jone Mugikak irabazi zuen Saloa Trevillaren aurretik.

Murgoitio Munduko Kopan Bestalde, Espainiako Txirrindularitza Federazioak urtarril amaieran Alemanian lehiatuko den Munduko Ziklo-kros Txapelketarako hautatuen zerrenda jakinarazi du; tartean daude Hirumeteko Egoitz Murgoitio eta Dani Ruiz. ■ J.D.

San Antonio Txapelketako lau t'erdiko finalak domekan

Domekan, 17:30ean hasita, San Antonio pilota txapelketako finalak jokatu dituzte lau t'erdian. Nagusietan Rober Uriarte abadiñarrak Onsalo areoarraren kontra jokatu du. Aurretik umetxoek eta kadeteek binaka jokatu dute.

Joan zen asteburuan, binakako finalak jokatu ziren. Lehen mailan Berasaluze VII.ak eta Kaperok 22-14 menderatu zituzten Zumeaga eta Astarloa, iazko txapela berrituz. Bigarren mailan Areito I.ak eta Arriagak 22-19 irabazi zieten Agirrebeitia eta Etxezarragari. Hirugarrenean Estebez eta Zabalak irabazi zuten. ■ J.D.

Durungaldeko pilota finalak Munitibarren

Bihar eta etzi Durungaldeko pilota txapelketako finalak jokatu dituzte Munitibarko pilotalekuan. Gaur, 19:00etan, nagusien mailan, Iurreta eta Berrizen artean ebatziko dute txapela; gazteetan Iurreta eta Durango lehiatuko dira, eta kadeteetan Mallabia eta Lea Ibarra.

Zapatuan, 17:30etik aurrera, gaztetxoek mailako finalak jokatu dituzte. Umetxoetan Lea Ibarren Markinaren kontra jokatu du; umetan Atxondo eta Lea Ibarra neurtuko dira eta gaztetxoetan Markina eta Iurreta.

Guztira 130 pilotarik parte hartu dute Durungaldeko txapelketan. ■ J.D.

Berasaluze eta Apraiz bigarren puntuaren bila

Berasaluze VIII.a eta Apraiz binakako pilota txapelketako bigarren puntua lortzen saiatuko dira domeka arratsaldean, Eibarko Astelenan, Bengoetxea VI.aren eta Patxi Ruizen aurka.

Bizkaiko bikoteak Olaizola I.aren eta Belokiren kontra lortu zuen orain arteko puntu bakarra (22-15). Gainerako partidu biak galdu egin dituzte, Titin IIIa-Pascual eta Xalabarriola bikoteen kontra.

Bengoetxeak eta Ruizek, berriz, orain arte jokatuak hiru partiduetatik bi irabazi eta bat galdu dute. ■ J.D.

Lau onenak nabarmendu dira hirugarren mailan

Play off postuko lau taldeek zuloa egin dute atzerago daudenekiko; onenen multzoan dago bihar Amurrio jasoko duen Kulturala



Aurten etxean beheko taldeen kontra pasatu ditu estuasunik handienak Kulturalak. Kepa Aginako

Joan zen asteburuko emaitzek tartea zabaldu dute play off postuetan dauden lehenengo lauren eta handik atzeragokoen artean. Goikoek ez zuten hutsik egin (Laudioren berdinketa izan zen sorpresa bakarra) eta Beasainek galdu egin zuen. Ondorioz, Amorebieta laugarrenaren eta Beasain bosgarrenaren artean bederatzi puntuko aldea dago orain. Nabarmenduta dabilen multzo horretan dago Kulturala, hirugarren tokian, Laudio liderrarengandik lau puntura.

Durangoko taldeak lortu duen aldea lasaigarria den arren,

Axier Intxaurrea ez da fidatzen. Zapatuan azken hirugarren dagoen Amurriok bisitatuko du Tabira, eta Kulturalaren entrenatzaileak ez du ahaztu Zamudio ere antzeko egoeran etorri zenean Tabiratik hiru puntuak eroan zituela. Horrez gainera, sailkapenak engainatu egin dezakeela

Amurriok entrenatzailea aldatu eta harrezkero emaitza onak lortu ditu

dio: "Oraintsu entrenatzailea aldatu eta emaitza onak lortu dituzte. Azkeneko partidu bietan ez dute golik jaso, eta Eibar Bri irabazi egin diote".

Tabira bisitatzen duten talde askok ohi duten legez, Amurriok kontraerasora jokatu duela uste du Intxaurreak. Horregatik, "oso garrantzitsua da atzean inoiz kontzentrazioa ez galtzea". Aurrean jokalarien kalitateak sortu behar lituzke aukerak.

Biharko partidurako bi jokolari bakarrik faltako dira, biak ere bost txartel pilotuta: Odei Onaindia eta Iñigo Carro. ■ J.D.

Kurutziaga eta Sasikoaren derbia areto futbolean

Areto futbolean asteburu honetako partidurik erakarrienaetakoa Sasikoa B eta Kurutziaga Ikastolaren arteko derbia da. Talde biak bata besteari atzean daude sailkapenaren erdialdean, eta puntu bakarreko aldea dago bien artean. Kurutziaga bereziki indartsu dabil aurten kanpoko partiduetan -zazpi neurketetatik lau irabazi egin dituzte eta bat berdindu dute- eta sailkapenean dituzten 17 puntuetatik 13 etxetik kanpora lortu dituzte.

Maila berean, Mallabia bigarren sailkatuak partidu gaitza dauka Tolosan. Gipuzkoarrak seigarren daude eta etxean seitek bost irabazi dituzte. Hala ere, Mallabiak etxetik urrun jokatutako neurketa denak irabazi ditu aurtengo denboraldian. ■ J.D.

Surfaren inguruko jaialdia Plateruenean

Zutundu Surf eta SUP Eskolak eskualdeko lehenengo surf jaialdia antolatu du biharko

Durungaldean surfa sustatzea helburu duen Zutundu surf eta SUP eskolak I. Durungaldeko Surf Jaialdia antolatu du zapatuan Plateruena kafe antzokian.

Arratsaldeko 19:30etik aurrera surfa oinarri duten bost bideo emanaldi ikusgai ipiniko dituzte: *Daniels Longboards*, *La casa de las algas*, *On the road Asturias*, *Basque Modernist Surfing* eta *5 Waves 5 Conti-*

nents; azken hori Kepa Acero surfariaren ingurukoa da.

Bideo emanaldien ondoren luntxa egongo da bertaratzen direnentzako, eta hainbat materialen zozketa ere burutuko dute Zutunduko kideek.

Azkenik, 22:00etan, Loon Vagos taldearen kontzertua hasiko da, eta gauerditik aurrera DJ batek berotuko du giroa.

Zutundu taldeko kideek beste ekimen berezi bat ere prestatu dute zapatu goizean. Surfazale guztiei dei egiten die zapatuan, 10:00etan, Lagako hondartzan mozorrotuta agertu eta horrelaxe uretara sartzeko. ■ J.D.

Bideo emanaldiak, musika eta material zozketa egingo dituzte

Adituarentxokoa

Agustin Alkorta
•Futbol entrenatzailea



Epaileei

Askotan, jendeari arrazoa ematen diot esaten dutenean futbola aspergarria dela. Ezin zaio deitu espektakulua sei jaurtiketa eta berrogei falta baino gehiago dituen partidu bati. Eta nortzuk dira ikuskizun horren arduradunak? Denen gainetik, jokalaria, eta gero epaileak. Azkeneko horiek ere garrantzia dute eta beraiei zuzendutako iritzi testua idatziko dut gaur.

Apurka-apurka badator epaile mota berri bat, jokoa bestela zuzentzen duena. Mateu Lahoz da epaile horien burua. Erruak epaile guztiek edukitzen dituzte, hori argi dago, baina Lahoz bezalakoek, jokoa ez dute gelditzen edozein 'karga' edo 'faltaxo'-gaitik. Erabaki horiek jokorekin eritmoan zerkusi handia izaten dute, eta hori, zenbat eta biziagoa izan, ikuskizunarentzako hobea da. Horrez gainera, ziria sartu nahi dutenak zigortu egiten dituzte.

Ez da erraza; futbola buruargientzako eginda dago, baina alde handia dago 'listo' eta 'tranposo'-en artean. Gainera, azken horiek ugaritzen ari dira, eta asmatzeko begi ona eduki behar da. Jokalaria jokora!

Ingalaterrako futbola beti da erreferentzia, eta auzi honetan ere bai. Bertakoek leialtasunez konpetitzen dute; ez dute 'igerilekura' jauzi egiten.

Azken finean, adierazi nahi dudana da izarrak ez direla bakarrik jokalaria. Epaile baten jarduna ona ere izan litekeela, zergaitik ez. Beraz, txoko honetatik animatu egiten ditut epaileak, eta esaten diet euren zuzentzeko era apur bat aldatuz gero jokoak eta zaleek eskertu egingo luketela.

Denboraldiko lehia biak irabazi dizkio Tabirakok Zornotzari

Ematen du Tabirakok Zornotzaren kontra jokatu behar duela EBA mailan partiduak irabazteko. Joan zen asteburuan, bigarren itzuliko lehenengo lehian, Durangoko taldeak 81-76 menderatu zuen Zornotza, emozioz eta intentsitatez betetako partiduan. Orain arte jokatutako 12 neurketetatik hiru irabazi ditu Tabirakok, horietako bi Zornotzaren kontra. Hala ere, durangarrek sailkapeneko azkeneko postuan jarraitzen dute.

"Intentsitate horregaz jokatuta edozein estutzeko kapaz gara"

"Beti horrelako intentsitateagaz jokatuz gero, edozein talderen kontra lehiatzeko eta edozein talde estuasunetan ipintzeko kapaz gara sinesteko balio behar digu garaipenak", adierazi du Tomas de Castro entrenatzaileak.

Asteburuan Tabirakok Cafés Aitonaren kontra jokatuko du eta Zornotzak Torrelavegaren aurka. ■ J.D.

Agenda

ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Durango Ilarduya - Hernani
Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Amurrio
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
OHOREZKO MAILA
Berriz - Bermeo
Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun
LEHENENGO ERREGIONALA
Iurretako - Zaldia
Zapatuan, 17:00etan, Larakozelain
BIGARREN MAILA
Abadiño - Zornotzako
Zapatuan, 16:15ean, Astolan
HIRUGARREN ERREGIONALA
Ezkurdi - Elorrio B
Domekan, 16:00etan, Arripausuetan

ARETO FUTBOLA
NAZIONAL B MAILA
Elorrioko - Tecunil Bilbo
Domekan, 12:00etan, Elorrioko udal kiroldegian
EUSKAL LIGA
Sasikoa - Kurutziaga
Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian
GOREN MAILA
Presion Break - Baklo
Zapatuan, 16:30ean, Berrizburun

SASKIBALOIA
BIGARREN ERREGIONALA
Julza Zaldia - Ugeraga
Zapatuan, 16.30ean, Zaldibarko kiroldegian



Gremioen

ITURGINTZA

 **sagasta**
ITURGINTZA
Inaki Urien Madrazo
Industria Azpiegiturak
GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA
Sagasta auzoa, Anibe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 98 24

 **urutiaga**
gremioen koordinazioa
BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
FRAKUSKETA, SAI MENTA ETA EZARPENA

 **URBASA** ELEKTRONIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK
SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEOKA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE RIDEZ - ALARMAK
Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com
 

Mallabiena
M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.
Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com


 **Arlandi ITURGINTZA**
Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa
Arlandi, 16 - behe 3. atea
Sakelekoa: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 58
Iurreta
Baimendun
Instalazioa

ARGIZTAPENA

ARGITAPEN TEKNIKAK
MARKIEGI
Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com


DEKORAZIOA

Diseinua • Dekoratzea • Irudiak • Proiektuak 3D • Legiritzak
Erdienak • Gremioen koordinazioa • Akzioak • Ogasunak
a-metz
[barne] diseinua
Interior
Bazabal, 3A behea • Tel.: 94 681 84 81
www.a-metz.com

GARBIKETAK

AZKARGI
GARBIKETAK
Bulego eta komunitate mantentzeak
Obra osteko garbiketa
Kristalatuak eta alfibrak
Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

LORAZAINTZA

Jardines
Patxi
Lorategiak
Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik
Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

GARBIKETAK

EGUIA S.L.
AROTEGIA
• GREMIOEN KOORDINAZIOA •
Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653
Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com


ERAIKUNTZA

arlax
ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA
Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea
Zureko egiturak
Barrualdea diseinatzea
Teillatu, fatxada, bainugelak, etab.
Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B DURANGO Sakelekoa: 615 77 91 70
605 77 03 57

laguntzaileak



ABADIÑOKO UDALA



ATXONDOKO UDALA



DURANGOKO UDALA



ELORRIOKO UDALA



MALLABIKO UDALA

LAUHANKA[>]



Kaltegarria eta arriskutsua da txakurrari txokolatea ematea sari moduan

Azukrea kontsumitzeak glaukoma eragin diezaioke txakurrari

Txokolatearen teobrominak intoxikazioa sortu diezaioke

Txokolatea, txakurrarentzat gozoki gustagarri bezain arriskutsua

“Ez eman txokolaterik txakurrari, itsu geratuko da-eta”. Zenbat bider entzun edo esan dugu esaldi hori? Baina egia da dioena ala ahoz aho zabaldutako zurrumurrua? Argitzen ahaleginduko gara.

Txakurra gizakiaren lagunik onena dela dio batek baino gehiagok, baina, dagoeneko, familiako beste kide bat ere badela esan daiteke sarritan.

Hainbesteko sentipenak eragiten ditu jabea eta animalia-aren arteko hartu-emanak, ze ez den batere harrizkoa afaltzeko orduan txakurra mahai ondoan izan eta jabeak platereko jakiren batez saritzea. Txakurrak, begi triste eta etenbako keinuekin, jabea konbentzitzen du janariaren zati bat emateko; “apur bategatik ez da ezer pasatuko”, esango du jabe errendituak. Txokolateagaz ere baten baino gehiagotan saritzen dira txakurrak; adituen arabera, kaltegarria

eta arriskutsua da. Droga batez alderatu daiteke: txakurrak geroago eta gehiago gura izango du, baina, etorkizunean, arazoak sortu ditzake.

Bi elementuren erruz da desegokia txokolatea.

Azukrea

Bada, bai. Azukrea kontsumitzeak itsutu egin dezake txakurra. Baina ez pentsatu txakurra egun batetik bestera ikusi ezinik geratuko denik. Adituek diotenez, azukrea jateak etorkizunean hainbat gaixotasun eragin diezazkioke animaliarri, eta horien artean glaukoma da garrantzitsuena: begi-globoak nozitzen duen gaixotasun honen

bereizgarria nerbio optikoaren zuntzetako kalte itzulezina da.

Teobromina

Txokolateak daukan beste osagaietako batek, Teobrominak, beste arazo batzuk sortzen dizkio txakurrari. Teobromina kakaotan dagoen elementua da, normalean hazian bertan garatzen dena. Txokolate apur batek ez du kalte handirik eragingo, baina tableta txakurrak hartzeko moduan utziz gero, intoxikatze bidean ipini dezakegu. Arriskua handitzen da txokolatea geroago eta puruagoa denean. Bihotz-taupaden erritmoa bizitzea, dardarak eta beherakoak pairatu ditzake, esaterako.





anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

SALDU
Abadiño. Muntzaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde eskigitokiarekin. Dena kanpoalde-runtz. Oso polita. Garajea eta trastelekua. Deitu eta ikusi! Telefonoa: 615 007 216

Abadiño. Muntzaraten. 2 logela, 2 komun, sukaldia, egongela, igogailua, trastelekua eta garajea. 4garren solairua, ia berria. 217.000 euro. Tel.: 688 686 587

Durango. Pisu ederra salgai Martxoaren 8ko kalean. 3 urte ere ez ditu eta oso polita dago jarrita. 80 m² ditu, bi logela, bi komun, oso polita den sukalde berria eta saloi ederra. Pisu osoa inguratzen duen 90 m²ko terraza itzela. Pisu osoak kanpora ematen du, komun batek izan ezik eta orientazioa paregabea da. Berarekin batera 30 m²ko garajea saltzen da. Telefonoa: 637 416 438

Durango. Apartamentu ederra, estreinatu bakoa. Odi bakar. Kalitatea. Domotika. Ezkaratzen hornituta. Gela bat, komuna, egon gela, balkoia. Asko gustatuko zaizu. Tel.: 669 454 618

Durango. 98 m²-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldia-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular eta terraza komunitarioak. Altxariz betea eta gutziz jantzia. Garaje eta igarilekuarekin. 655 704 684

Durango. Alde Zaharra. 71 m². Kanpoaldera begira. Altxariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldia. Komun bat. Gutziz berriztuta. Berehala bizitzera joateko aukera. 215.000 euro. 607 715 353

Durango. Kalebarrian, 74 m². 3 logela, despentsa, egongela, sukaldia eta komuna. Erreformatuta, oso polita. Ganbara. 696 397 387

Durango. Atiko zoragarria Alde Zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berriztuta. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! Tel.: 659 425 890

Durango. 94 m². Herriko gudariaren plazan (osasan etxe zahararen aurrean). 3 logela, 2 komun, sukaldia eskigitokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, eguzkitsua eta bista ederrekoa. Prezioa: 343.000 euro. Tel.: 615 760 801.

Durango. Andra Maria kalean. Bi logela, egongela, sukaldia eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du; oso argitsua. Pisu altua, 30 m²-ko terrazarekin. Tel.: 696 255 083 (17:00etatik aurrera)

Durango. Sasikoa kalean. 3 logela, komuna, egongela-jangela, sukaldia eta ganbara. Prezio onean. Garajea ere bai, nahi bada. 679-38 23 69

Durango. Sasikoa kalean. 71 m²-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela-jangela eta sukaldia. 2 balkoi. Kafekazioa ere badauka. Ganbara eta garajea. Prezio oso ona. Telefonoa: 679 382 369. Sorkunde

Elorrio. Pisu ederra. Berri-tua, 124 m², gas naturaleko

berogailua, sukalde hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun, jangela, 2 balkoi eta garaje itxia. Prezioa: 264.500 euro. Tel.: 685 734 825

Elorrio. Berrio-Otxoa kalean berriztuta dagoen jaurer-gian, 70 m²-ko pisu polita, 2 logela, sukalde eta egongela, komuna, trastelekua, garaje itxia. 303.000 euro; trasteleku eta garaje barik 283.000 euro. Nagore: 653 748 001

Iurreta. Askondo kalean. 210.000 euro. 78 m², 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Igogailua badago. Garajea ere bai, gura bada. Tel.: 94 681 19 48.

Mallabia. Baseria eta 20.000 metro karratuko lur zatia salgai. Kokapen ona eta prezio egokia. 12:00-14:00 eta 18:00-22:00 artean deitu. Tel.: 655 702 647

ERRENTAN EMAN
Atxondo. Bi logela alokagai, komunareko eta sukalderako eskubidearekin. 666 829 510

Durango. Ederra. Berria. Odi bakar. Gela bat, ezkaratza, komuna, egongela, balkoia. Domotika. Kalitatea. Argitsua. Asko gustatuko zaizu. 600 euro. 669 454 618

Durango. 3 logela. Oso eguzkitsua eta bista ederrak. 4. Pisua, igogailu eta berogailuagaz (gas naturala). Telefonoa: 638 125 838

Elorrio. 50 m²-ko atiko berria. Logela, komuna eta sukalde-egongela. Igogailua ere badu. Oso polita. Tel.: 606 043 835

Zaldibar. Logela bat errentan. Telefonoa: 655 739 792

ERRENTAN HARTU
Durango. Alkilatzeko etxe bila nabil Durangon eta inguruetan. 637 14 41 62. Momo

Elorrio. Altxariz jantzitako pisu bila nabil Elorrian, alokatzeko. Tel.: 94 658 21 91

OPORRETAO ETXEBIZITZAK
ERRENTAN EMAN

Durango. Larunsen (gourette eski estazio ondoan) mobilhomea alokagai, eski denboraldian, astelehenetik ostiralera. Tel.: 678 748 924

PISUA KONPARTITU
PISUKIDE BILA

Durango. Pisukide bila gabilta. Pisua egoera onean dago. Leku lasaian eta Alde Zaharretik bi minututara. Tel.: 679 620 447 / 646 654 744

Durango. Etxea partekatzen, Durangaldekoa den etxekide bila nabil. Beltzane. Tel.: 669 710 680.

Durango. Pertsona bat behar dugu etxea partekatzen, leku onean. Etxe berria. Tel.: 657 72 36 14.

LOKALAK
ERRENTAN EMAN

Abadiño. Lokal ekipatua, altxarierekin, Matiena eta Durango bitarteko errepidean. 120 m². Tel.: 619 790 053.

Atxondo. Apatan 40 m²-ko lokal alokagai. Komuna ipi-

nita dauka. Tel.: 686 137 123
Durango. Biltegi modura erabili daitekeen lokal Kalebarrian. 20 m². 200 euro hilean. Tel.: 665 700 461.

Iurreta. Pabiloia alokagai Arriaundiko industrialdean. 150 m² behe, 120 m² goia. Tel.: 657 79 45 52.

GARAJEAK
SALDU

Berriz. Itxita. Argia eta ura. Ate automatikoa, bainua, txokoa eta bodega txiki bat. 41 m². 2 edo 3 kotxe. Tel.: 615 752 136

Durango. Garajea (marrak) alokatzen dut Landako 7 kalean (madalenan). 35 euro. Telefonoa: 625 921 057

Durango. Garaje partzela bat salgai Alluitz kalean, 3. 22.000 euro. Telefonoa: 636 33 82 46. Amaia

Elorrio. Berrio-Otxoa kalean. Telefonoa: 658 759 264

ERRENTAN EMAN

Durango. Garaje bat alokatzen dut azoka plazaren ondoan, Durango erdian. Interesa izanez gero, deitu, mesedez. Tel.: 619 187 799.

Durango. Motorrentzako garaje partzela bat alokagai, 25 euroan. Erdigunean kokatuta. Saltzeko aukera, 9.000 euroan. Tel.: 665 700 461.

Teknologia
INFORMATIKA

Ordenagailuak konpontzen ditut. Etxe etxe joaten naiz konpontzen. Konfiguratu, birusak kendu, periferikoak ipini, etab. Arin eta merke! Tel.: 650 172 285

Lana/negozioak
LAN ESKARIAK
ETXEKO LANAK

Durango. Neska eskalduna, etxeko lanak, portalak zein tabernak garbitzeko prest. Durangaldean. Kotxea dut. Telefonoa: 946 81 71 74

Durango. Andre esperientziadun batek bere burua eskaintzen du goizetan etxeak garbitzeko. 645 706 839.

Durango. Prest nago portalak garbitzeko Durangaldean. Tel.: 665 717 458

PERTSONAK ZAINDU
Atxondo. Neska gaztea eta eskalduna aste barruan arratsaldean umeak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako ikaslea. Umeekin esperientzia eta autoa. Lanerako prest nago. Tel.: 626 196 885

Durango. Esperientziadun gaztea eta erreferentzia onak dituen interna edo externa modura lan egiteko prest. Tel.: 686 161 334

Durango. 27 urteko neska, goizez umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edota dendetan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. Tel.: 665 7174 58

Durango. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke, interna edo ex-

terna modura. Baita sukaldari moduan ere, jatebixetan. Tel.: 628 002 217

Durango. Neska eskalduna, umeak zaindu eta garbiket lanetan aritzeko prest. Telefonoa: 619 20 11 19

Durango. Neska eskalduna arratsaldeetan haurrak zaindu eta eskola partikularrak emateko prest. 680 274 327

Durango. Garbiketetan jarduteko, umeak edo nagusiak zaintzeko, externa edo interna ezein orduka lan egiteko prest. Erreferentziak. Tel.: 690 385 891.

Durango. Lanaldi osoan edo orduka aritzeko lan bila nabil, pertsona nagusien zaintzan edo garbiketetan. Erreferentzia onak. Tel.: 650 61 01 94.

Elorrio. Neska eskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan edo orduka (astelehenetik ostiralera) haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako tituluduna eta hezkuntza bereziko ikaslea. Tel.: 688 640 604 (arratsaldez).

Elorrio. Neska eskalduna astelehenetik ostiralera bitartean, arratsaldetan edo orduka, pertsona edadetuak pase-aterazteko prest. Tel.: 688 654 291 (arratsaldez).

IRAKASKUNTZA
GAINERAKOAK

Atxondo. Eskola partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezian diplomaduna eta EGA. Hiru urteko esperientzia eta ingelese ere emango nuke. Telefonoa: 645 710 248 / 94 658 31 55

Berriz. 2. batxilergoko ikasle bat, laguntza eskolak emateko prest (ingelese, matematika...). Bakarka zein taldeka. Ingeleseko titulua eta atzerriko esperientzia. Deitu: 676 87 19 29.

Durango. 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle eskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitate matematika klaseetan. Telefonoa: 635 74 61 76

Durango. Ingeles maila hobetu nahi? Ingeles irakaslea partikularrak emateko prest. Ingeles irakaslea ingelesez ikasi nahi baduzu, deitu. Durango. Tel.: 625 70 98 46

Durango. Informatika eskola partikularrak ematen dira. Maila guztiak: access, word, interneta etab. Lanbide heziketako irakaslea naiz. Edurne. infordurango@gmail.com

Durango. Ingeles irakastzen diplomaduna, eskola partikularrak emateko prest. Telefonoa: 619 20 11 19

Elorrio. Haur eta gazteentzako laguntza eta helduentzako euskara azterketen prestaketa. Tel.: 675 706 105

GAINERAKOAK

Durango. Neska gazte eskalduna, arratsaldez orduka lan egiteko prest aste bitartean, haurrak zaindu, garbiket lanak edo dendari bezala lan egiteko. Tel.: 615 716 232

Durango. Durangoko neska eskalduna umeak zaintzeko prest. Arratsaldetan zein orduka izan daiteke (astelehenetik ostiralera). Autoa eta

gidabaimena. 639 879 065
Durango. Ilea-paintzailea durango eta inguruetan lan egiteko prest. 600 666 417

Durango. Asteburuetarako lan bila nabil Durangon edo Bilbon. Erreferentzia onak. Tel.: 699 77 57 21.

Durango. Asteburuetarako lan bila nabil, taberna edo edozein lanerako. Kotxea daukat. Tel.: 656 750 534

Durango. Masajek etxetz etxe, Durangaldean. Etxetik mugitu gabe zure gustuko hantekariak igurtziak, masaje lasaigarriak zein terapeutikak. Sesioa: 10 euro (40 min). Sesio berezia: 15 euro (ordu bete). Luis mari. 606 266 244. Aurretiaz deitu (egun bat lehenago, gutxienez)

LAN ESKAINTZAK
OSTALARITZA

Abadiño. Pertsona bat behar dute, asteburuetan txandaka sukaldean lan egiteko. Tel.: 620 45 96 92.

ETXEKO LANAK

Durango. Etxeak eta bulegoak garbitzeko eta umeak zaintzeko prest. Manuela Lopez. Tel.: 94 681 92 01 edo 664 253 978.

GAINERAKOAK

Abadiño. Tornularia. Ezinbestekoa: esperientzia eta Durangaldean bizitzea. Lanaldia osoa zatitua. Kontrata: aldi baterako baina luzatu daiteke. Berehala hasteko. Soldata: hitzarmenaren arabera. Sartu. Erref.: 239. Tel.: 94 620 04 49

Durango. Aseguru-merkatari bat. Ezinbestekoa: diplomaduna izatea, komertzial lanetan esperientzia izatea eta inguruan bizitzea. Lanaldi osoa. Berehala hasteko. Urteko soldata gordina: 24.000 euro. Sartu. Erref.: 10477. Tel.: 94 620 04 49

Durango. Talde-lana gustuko baduzu eta pertsona gogotsu eta dinamikoa izanez gero, bialdu zure curriculum: selek@hotmail.com postara.

Durango. Esperientzia duen saltzailea behar da, ehungaitako komertzio baterako. Bialdu curriculum: 356 posta kutxa, 48200 durango.

Durango. Merkataritzako agentea. Musika espezializatuko handizkaria. Ezinbestekoa: ingelese menperatzea, gida baimena izatea eta Durangaldean bizitzea. Lanaldi erdikoa goizez. Kontrata: aldi baterako baina luzatu daiteke. Berehala hasteko. Solda-

ta: hitzarmenaren arabera. Sartu. Erref.: 405. Tel.: 94 620 04 49

